

Laugaren elementua

por Joxemari Iturrealde

Udako oporrak nahiko aspergarriak suertatu ziren eta aski etsipengarriak. Bat-batean, herria uzteko astebete falta zenean, dena aldatu zen ordea. Gosaltzen nengoen sukaldetan harritxintxar baten hotsa entzun nuenean

leihoko kristalaren kontra indarrez jotzen. Gomax zen eta bere bizikletatik eskuz keinuka ari zitzaidan berehalaxe jaitsi nendin plazara. Agudo, segi ene atzetik-agindu zidan bere ondoan jarri nintzenean.

Zistu bizian atera ginen herritik, tximista bezala zeharkatzen aurrena plaza eta ondoren kalestuak, pedalei geratzeko eraginez kale Nagusia pasatu genuenean (hemen Gomax munduko txapeldunaren gisan) eta iturrien plazatxoa zeharkatzean (hemen Risky, hau da, ni neu txapel-dun olinpiko baten modura). Bai, bai, asmatu duzue: Gomaxek gustuko duen neska, Lidia, kale Nagusian bizi da eta Anuxka, nik maite dudan neska, iturrien plazatxoan bizi da.

Herriko azken etxeak atzean utzi genituean Gomax bizikletatik jaitsi zen. Horrek jakinarazi zidan Karmengo elizatxoraino gorantz doan bidea hartua genuela. Bidexka hori hasten da goruntz igo eta igotzen hainbesteraino non azken batean ez dagoen inor igo dezakeenik bizikletatik jaitsi gabe. Makinatik jaitsi —horrelaxe deitzen dio bizikletari Juan Ignaziok— eta Gomaxen ondoan jarri nintzenean gertatzen zena hasi zitzaidan azaltzen, ezin urduriago.

—Atzo Silbanorekin egon ninduan, ez duk sinistuko. Sinisgaitza izan huen.

—Silbanorekin... Silbanorekin? —horixe besterik ez zitzaidan bururatu orduan galdezko.

—Horixe, Silbanorekin, inozo halakoa. Norekin bestela? Baliarraingo Silbanorekin.

Ahal nuen moduan ari nintzen aldatzar hura igotzen, arnasteka eta bizikleta erdiarrastaka neramala, eta Gomaxek ezin zuen gehiago, arnasteka, izerditan blai eta guztiz arrastaka bere makina egun hartako lehen ideia ona burruzu zitzaison arte: «Zakurraren ipurdira bizikleta hau!», esan zuen bultzada handi batez bota zuelarik bidertzean zegoen sagarrondo baterantz. Gauza bera egin nuen neuk ere. Orduan ekin zion argitzeari, arnastea saioak tartekatuz, nola izan zen Silbanori egindako bisita. Elizatxoaren atzealdean dagoen belazean futbolean ari zirela, jaurtiketa aldrebes samar baten ondorioz, baloiak ihes egin eta beheruntz joan zitzainen Silbanoren baratzean pausatu zen arte. Nahikotxo beldurturik Gomax izan zen jaitsi behar izan zuena —berak bota baitzuen baloia hain desbideraturik— Baliarraingo baserriraino. Beldur zion Silbanori eta bereziki haren txakur jagoleari, zein zaunkaka ari baitzen etengabe Gomax Silbanoren soroetara inguratzen ari zela ikusten zuen heinean.

Honek isiltzeko agindua eman zion txakurrari eta baserri barrurantz sartu-razi zuen.

—Egia duk oso gizon ixila dela, hitz gutxikoa —argitu zidan Gomaxek— baina gizaki zoragarria duk benetan. Ez duk mundu honetako. Egiten duen guztia ikusten zitzaiko ukitua. Ezin duk sinistu ere.

Silbano bakarrik bizi zen baserri handi hartan. Bera eta Bolki bere txakurra. Astelehenetan soilik uzten zuen baseria azokara jaisteko. Han saltzen zituen be-

re barazkiak eta behar zuena erosten. Argindarrik gabe bizi zen eta etxe barruan ez zeukan urik ere. Ikusi zuenean Gomax izerditan zetorrela —beti bezala bestalde— urik nahi zuenentz galdetuzion eta honek baiezkoa erantzutean urputzuraino inguratzen ziren eta bertatik atera zuen behar zuen ura soka luze eta pertz zahar baten laguntzaz.

—Gero oso lagun handiak egin eta lizaro egon gintuan solasean —jarraitu zuen Gomaxek—. Afaltzeko gonbitea ere egin zidakean.

—Eta berarekin afaldu al huen?

—Ez, etxera itzultzeko ordua iritsia zelako. Baino alde egin baino lehen afaria prestatzen lagundu nioan —eta hau esaten zidan bitartean niri begira geratu eta farrezka hasi zen.

—Zer daukak? Zergatik hasi haiz farrezka?

—Entsalada eta arraina zegoelako afaltzeko.

—Eta...?

—Ba, baratzaraino joan eta lagundu niolako tomateak biltzen eta lurretik letxuak eta arraina ateratzen...

Gomax isildu egin zen eta tinko begiratu zidan farrezka jarraitzen zuen bitartean. Gu bion isilaldiaren ondoren argitu zidan Silbanok, argindarrik ez zeukan, ez zuela frigorifikorik eta hozkailutzat bere baratzako lurra era-biltzen zuela. Zulo handi bat egin eta hantxe uzten zuen arraina gatza pilo batzegabe babesturik. Horregatik esan zuen Gomaxek Silbanok lurretik ateratzen zuela arraina.

Elizatxoa zegoen gainera iritsi baino hirurehun bat metrora bidetxior bat haratu genuen eskubirantz Silbanoren base-rrira joatearren. Sagar eta gerizondoz



FERNANDO L. JUÁREZ.

osaturiko basotxo batek ez zuen uzten ikusten baserria bat-batean bisitariak au-rez-aurre topo egiten zuen arte.

—Eta seguru al hago esan zianaz? Gu etortzeko gonbitea luzatu al zian? Bene-tan?

—Baietz ba... Eta isildu hadi behingoz ailegatu gaituk eta.

Iritsi ginen baina han ez zuen ematen inor zegoenik. Silbano, Silbano... oihu-katu zuen zenbait aldiz Gomaxek baina ez zigun inork erantzun. Baserriko atea itxita zegoen eta baratzatik bueltaka ibili baginen ere han ez genuen ikusi Silbanorik, Bolki edota ezeren arrastorik. Horrek pittin bat harritu gintuen ez baitzen astelehena, hots, azoka eguna. Gauza da handik puska batera herrirantz abiatu ginela. Biharamunean Baliarrainera itzuli ginen eta dena bezperan bezalaxe suertatu zen, han ez zegoen inor. Eskukada bat gerezi on hartu —seguru Silbanok oparitu egingo dizkidala eskatzen badizkiot, argitu zuen Gomaxek— eta baratzatik buelta pare bat eman on-doren, horrela Gomax baliatu zelarik niri erakusteko nola hondoratu behar den lurrean arraina ateratzearen, ostera ere itzuli ginen herrira.

—Seguru hirira joan dela bizitzen —ausartu nintzen esatera zerbait esate-aren.

—Ixildu hadi eta etzak esan ergelke-

riarik gehiago —bat-batean moztu zidan Gomaxek.

Hurrengo egunean ez ginengi igo base-rrira Gomaxek ezin zuelako (hirira joan behar izan zuen gurasoekin bere amak ordua hartuta baitzeukan medikuarene-an) eta hurrengoa neuk ezin izan nuen joan gure aitari amaitu baitzitzakzion oporrak eta denok itzuli behar izan ge-nuen etxera. Oporren amaiera eta sa-soiaren bukaera niretzat. Gomaxek herriean bi aste gehiago egoteko zortea izan zuen.

Klaseak berriro hasi zirenean Goma-xek kontatu zidan misterioaren amaiera. Zenbait egun igaro ziren inork eduki gabe Silbanoren berri. Norbait larritu eta baserriraino hurbildu zen. Sartu zi-renean nekazarria lurrean zerraldo zet-zala aurkitu zuten, hilda sukalde zahar haren erdian luze. Urpegia zauriz eta harramazkaz josia zuen. Bainaz ez zen hil norbaitek indarkeriaz erasotu eta zauri haien egin zizkiolako. Ez. Gizon hura hil zen lasai, bere bihotz nekatuak bat-batean lan egiteari uko egin zionean. Eta Bolki, bere txakurra, lurrean zetzan hilda baita ere. Txakur gaztea zen hura bihotz sendo bat zeukan baina bere nagusiari lagundu egin nahi izan zion. Hau hiltzerakoan saiatu zen modu guz-tietan esnarazten, ahal izan zuen era guztieta berpiztu nahian, hortik zeuz-

kan gizonak harramazka haien aurpe-gian. Gero, behin nagusia hil zenean, baserritik alde egin beharrean nahiago izan zuen bere ondoan geratzea, haren alboan etzan eta hantxe geratu zen kie-to gosez hil zen arte.

Uda amaiera bitxi samarra izan huen, egia esateko —jarraitu zuen Gomaxek pittin bat filosofikoki esplikatuz segidan etorri zena— astroen bateratze arraro batek dena hankaz gora jarri izan bai-luan. Ikusi nizkian arrainak lurpean, txakurrik uretan, gizonezkoak desagertzen eta aire zerutiarrerantz hegal egiten. Fal-ta huen, noski, laugarren elementua: sua. Berehalaxe iritsi huen. Txakurra putzuan azaldu huen, gorputua desagertu huen, eta sua azaldu, hau duk, sutea. Bas-erriak ere hegal egin zian. Suak hartu, erre eta hegal egiten joan huen. Aurrena sua iritsi huen, segidan suhiltzaileak irit-si hituen baina ordurako berandu huen, jarraian pertsona batzuk ailegatu hituen jantzi eta maletin beltzez hornituak eta, azkenik, empresa eraikitzale berriaren hondeamakinak ailegatu hituen. Silbano bizi zenean ez huen inor azaldu handik, inor ez baitzen beratzen interesatzen, bai-na behin hil ondoren dena aldatzen iku-si genian hilabete baten buruan. «Egia esateko suak, laugarren elementuak, de-na aldarazten dik oso azkar», erabaki zuen Gomaxek.

Habían sido unas vacaciones de verano bastante aburridas y muy decepcionantes. De repente, cuando faltaba una semana para que abandonáramos el pueblo, todo cambió. Me encontraba yo desayunando en la cocina cuando una china golpeó con fuerza el cristal de la ventana. Era Gomas y desde su bicicleta me hacía signos con la mano para que bajase a la plaza inmediatamente. «Sígueme, rápido», me dijo cuando estuve a su lado. Salimos del pueblo a toda velocidad, cruzando como una exhalación primero la plaza y luego sus callejuelas, pedaleando a toda pastilla cuando atravesamos la calle Mayor (aquí Gomas, en plan as del pedal) y al cruzar la plazuela de las fuentes (aquí Risky, o sea yo, en plan as de la pista). Sí, efectivamente habéis acertado: la chica que le gusta a Gomas, Lidia, vive en la calle Mayor y Anuxka, de quien estoy enamorado, vive en la plazuela de las fuentes.

Una vez que hubimos dejado atrás las últimas casas del pueblo Gomas se bajó de la bicicleta. Eso me hizo ver que habíamos cogido el camino que va subiendo hasta la ermita del Carmen. Es un camino llano que, de repente, empieza a empinarse y asciende y asciende y no hay quien lo pueda subir sin bajarse de la bici. Cuando me bajé de la máquina —así es como Juan Ignacio llama a la bici— y me puse a su lado es cuando empezó Gomas a explicarme lo que pasaba, presa de gran excitación.

—Ayer estuve con Silvano, no te lo puedes creer. Fue increíble.

—¿Con Silvano... Silvano? —fue lo único que se me ocurrió preguntarle entonces.

—Claro que sí, idiota. ¿Con quién si no? Con Silvano el de Bariarrain.

Yo iba subiendo la cuesta como podía, jadeando y medio arrastrando la bicicleta, y Gomas ya no podía más, jadeando, sudando y arrastrando del todo su máquina hasta que tuvo la primera buena idea de aquel día: «La bici para su padre», dije mientras de un fuerte empujón la tiró junto a un manzano que había al borde del camino. Yo hice lo mismo. Entonces me fue explicando, entre jadeo y pausa, cómo había sido su visita a Silvano.

Jugando al fútbol en el campo que hay detrás de la ermita,

El cuarto elemento

por Joxemari Iturrealde

se le escapó el balón, tras un tiro muy desviado a la portería contraria, que bajó rodando sin parar hasta una de las huertas de Silvano. Con más miedo que otra cosa, Gomas tuvo que bajar —él había sido el autor de aquel disparo tan desviado— hasta el caserío de Bariarrain. Tenía miedo de Silvano y, sobre todo, de su perro guardián, que no paraba de ladrar a medida que veía a Gomas acercarse hasta las propiedades de Silvano. Fue éste quien ordenó al perro que se callase y le hizo meterse dentro del caserío.

—Es verdad que Silvano habla muy poco —me fue aclarando Gomas—, pero es una persona maravillosa. No es de este mundo. Todo lo que hace no lo hace nadie más que él. Es increíble.

Silvano vivía solo en aquel gran caserío. Él y su perro Volkí. Únicamente abandonaba su caserío los lunes para bajar al mercado. Allí vendía sus productos y compraba lo que necesitaba. No tenía luz eléctrica ni agua del grifo. Como vio que Gomas había llegado sudando —como siempre—, le preguntó si quería agua y al contestarle éste que sí fueron hasta el pozo y allí con una larga soga y un cubo consiguió el agua que necesitaba.

—Luego nos hicimos muy amigos y estuvimos hablando mucho rato —continuó Gomas—. Incluso me invitó a cenar.

—¿Y cenaste con él?

—No, ya que me tenía que ir a casa. Pero antes le ayudé a prepararse la cena —y mientras decía esto me miró y se puso a reír.

—¿Qué te pasa? ¿Por qué te ríes?

—Porque había ensalada y pescado para cenar.

—¿Y qué....?

—Pues que fuimos hasta la huerta y le ayudé a coger los tomates y a sacar de la tierra las lechugas y el pescado...

Gomas se calló y me miró fijamente mientras continuaba riéndose. Tras un silencio suyo y

mío, me explicó que Silvano, al no disponer de electricidad, no tenía frigorífico y usaba como nevera la propia tierra de su huerta. Había hecho un gran agujero y allí depositaba el pescado protegido en grandes cantidades de sal. Por eso fue que Gomas dijo que Silvano sacaba el pescado de la tierra.

Unos trescientos metros antes de llegar a la cima donde se encontraba la ermita, cogimos una vereda hacia la derecha en dirección al caserío de Silvano. Un pequeño bosque de manzanos y cerezos impedían ver el caserío hasta que, de repente, uno se encontraba casi enfrente de él.

—¿Y estás seguro de lo que te dijiste? ¿Te invitó a que viniéramos? ¿Seguro?

—Que sí... Y cállate, que ya estamos llegando.

Llegamos, pero allí no parecía que hubiera nadie. «Silvano, Silvano...», gritó varias veces Gomas, pero nadie nos respondía. La entrada del caserío se encontraba cerrada y, aunque dimos un par de vueltas por la huerta, allí no pudimos ver ni a Silvano ni a Volkí ni rastro de nada. Aquello nos extrañó un poco porque ni siquiera era lunes, día de mercado. Total, que después de un rato nos volvimos al pueblo. Al día siguiente regresamos a Bariarrain y fue lo mismo que la vez anterior, allí no había nadie. Cogimos unos cuantos puñados de buenas cerezas —«Seguro que Silvano me las regala si se las pido», aclaró Gomas—, y tras dar un par de vueltas por la huerta, cosa que aprovechó éste para enseñarme dónde hay que cavar en la tierra para sacar el pescado, de nuevo regresamos al pueblo.

—Seguro que se ha ido a vivir a la ciudad -aventuré yo un poco a lo loco.

—Cállate y no digas majaderías —me cortó en seco Gomas.

Al día siguiente no fuimos hasta el caserío porque Gomas

no podía (tuvo que ir a la ciudad con sus padres, ya que su madre tenía hora en el médico) y al otro no pude ir yo, porque a mi padre se le terminaron las vacaciones y todos tuvimos que regresar a casa. Fin de vacaciones y fin de temporada para mí. Gomas todavía tuvo la suerte de poder quedarse dos semanas más en el pueblo.

Cuando comenzaron de nuevo las clases, Gomas me pudo contar el final del misterio. Pasaron varios días sin que nadie supiese nada de Silvano. Alguien se alarmó y fue hasta el caserío. Cuando entraron se encontraron con que el campesino yacía muerto en el suelo, tirado en la mitad de aquella vieja cocina. Tenía toda la cara llena de rasguños y heridas. Pero no murió porque alguien le hubiese atacado violentamente y producido aquellas heridas. No. Aquel hombre había muerto tranquila mente, cuando su cansado corazón dejó de trabajar de repente. Y Volkí, su perro, yacía también muerto a su lado. Era un perro joven con un robusto corazón, pero quiso acompañar a su amo. Al morir éste, intentó desesperadamente despertarle, reavivarle por todos los medios, de ahí los rasguños de la cara. Luego, una vez que su amo había muerto, en vez de irse del caserío, prefirió quedarse junto a él, se tumbó a su lado y allí se quedó hasta que murió de hambre.

Fue un final de verano un poco raro, la verdad —continuó Gomas explicándome un poco filosóficamente lo que vino después—, como si una extraña conjunción de los astros hubiese puesto todo al revés. Vi peces en la tierra, perros en el agua, hombres que desaparecían y volaban hacia el aire celestial. Faltaba, claro, el cuarto elemento: el fuego. Enseguida llegó. El perro apareció en el pozo, el cadáver desapareció, y apareció el fuego, o sea, el incendio. También el caserío voló. Ardió y voló. Primero llegó el fuego, luego llegaron los bomberos pero ya era tarde, a continuación unas personas de traje y maletín negro y, por último, llegaron las excavadoras de la nueva empresa constructora. Mientras Silvano vivió nadie apareció por allí, nadie se interesaba por él, pero una vez que hubo muerto, todo cambió en menos de un mes. «La verdad es que el fuego, el cuarto elemento, hace cambiar todo muy rápidamente», sentenció Gomas.